NOLA EMAN SARRERA EUSKALKIARI NIRE IKASTETXEAN ?

1- EGOERAREN DIAGNOSTIKOA EGIN :

Lana Berriozarren kokatua dago eta hauek lirateke berezko ezaugarriak :

1.1- IKASLEEN TIPOLOGIA :

Ikasleak erdaldunak dira nagusi eta ehuneko hamarra gutxi gora behera euskalduna da . Euskaldunen artean oso gutxi dira bai ama bai aita euskaldunak dituena. Beraz, elebidunak dira. Orduan, murgiltze- eredua nagusia da eta atxikitze-eredua bakarrik kasu gutxitan nabarmentzen da. Horren ondorioz, aipatzen ahal da ikasle guztiak erdaldunak direla, eta horien artean batzuk elebidunak. Euskaldun petoak gutxi batzuk besterik ez dira.

1.2 IRAKASLEEN TIPOLOGIA :

Guztira hogeita lau irakasle euskaldun gara D ereduan eta lau bakarrik euskaldun zahar. Gainerantzeko guztiak euskaldun berriak gara. Batzutan horrek baldintzatzen ahal du hitz egiteko gaitasuna, batez ere, eremu ez formala landu nahi dugunean.

Irakasleen jaioterria oso garrantzitsua izan daiteke euskalki bat edo bestea zabaldu nahian bagabiltza , baina horretan ez dago aterabiderik. Arrasate, Hondarribia, Bera, Arbizu dira euskaldun zaharren jaioterriak eta agerian dago euskalki ezberdinak direla.

Beste aldetik , jarraipena izateko kontuan hartu beharko genuke irakasleen egonkortasuna eta argi dago urte batetik bestera aldatuz doala, behin betikoak ugariak bagara ere.

1.3 GURASOEN TIPOLOGIA :

Ikaslearen tipologia eta gurasoena batera doa. Euskararen ezagutzari dagokionez, ikaslearenak gurasoena bikoizten du. Ikasleak eskolara etortzen direnean , euskaldunak badira, ama edo aitarengatik jaso egin dutelako izanen da ala biengatik. Azken hauek oso urriak direnez, aipa dezaket gurasoen ehuneko bosta euskalduna dela. Hala ere, udalak egindako txosten baten arabera helduen ehuneko zazpia euskalduna da. Datu horiek kolokan jar daitezke bi arrazoiengatik. Alde batetik, eskola eskualde osoari dagokio eta Berriozarrez gain badira beste herri txiki

batzuk: Xulapain, Berriogoiti, Berriobehiti,... eta horrek bataz bestekoari eraginen dio.

Beste alde batetik, erroldan lortutako datoak bakoitzaren euskararekiko aitorpenetan oinarritzen dira eta hori ez da batere fidagarria, euskararen jakintza eta jakinnahia edo berarekiko desira nahastu egiten direlako.

1.4- ALDEKO JARRERA HORRELAKO PROIEKTU BATEN AURREAN ?

Proposamena aurkeztu behar da D ereduaren irakasleen aurrean eta eztabaidatu ondoren erabakia hartuko da. Interesgarria izan daiteke euskalki bat geuregain hartzea, baina horrek baldintzatuko digu gainerantzeko lana. Hasieran irakasleen arteko elkarlana egin beharko da eta euskalkia hautatu. Aurreko mementoan aldeko joera egon daiteke, baina denbora dela kausa eta administrazioak jarritako eginbeharra, proiektu eta abarrekin zaila dugu. Denbora mugatua dugu ziklo, bilera, gurasoak direla medio. Lehen Hezkuntzako irakasleok ez dugu betarik proiektu berriak egiteko. Lana gure neurrian ahalik eta hobekien prestatzeko badugu denbora nahiko justu eta eginbehar berriak denbora kenduko liguke. Beraz, aldeko joera egonen delakoan nago, baina denbora faltak mugatuko luke bere garapena. Proiektuak aurrera eramateko beharrezkoak dira elkarrekin lan egiten jakitea eta denbora izatea eta bi horien premia nabaria da. Gainera, eskolatik kanpo egoteak ez du laguntzen memento honetan proiektu berriak planteatzen , ikusmira zabalagoa behar delako eta gaur egun jarduera bat-batekotasunari helduta dago eta euskalkiarena etorkizunean eztabaidagai izanen da, baina ez orain.

1.5 EUSKARAREN EGOERA IKASTETXEAN: ereduak, funtzionamendua, inguruarena (herria, eskualdea), hainbat datu soziolinguistiko.

Berriozarko eskola eskualdekoa da . Beraz, bertako ikasleez gain zonaldekoak ere joaten dira. Gehienetan herri txikiak dira eta handienak hauexek dira: Berriogoiti, Berriobehiti, Sarasa, Aintzoain, Xulapain, Ollakarizketa, Oltza...

Euskararen legearen arabera zonalde elebidunean dago eta horren ondorioz, irakaskuntzan hiru eredu daude (A ,G, D). D eredua indartsuena da, baina G eta A eredukoak batuz gero, ikasle gehiago biltzen dute eta praktikan horrela da. D ereduko zenbait mailatan bereizketa egin da eta A eta G ereduak kurtso guztietan daude banaturik. Maila baxuetan ereduen arteko aldea, kopuruari begira eskaxa da; baina altuetan begien bistan dago. Beraz, datu horietatik bi ondorio kontrajarriak ateratzen ahal ditugu. Alde

batetik, badirudi azken urte hauetan euskararen aldeko apostuta agerian dagoela. Bestetik, aipatu behar da etorkinen presentzia eredu euskaldunean oso murritza dela. Horregatik azken faktore horri buelta eman beharko genioke.

1.6 EUSKALKIA :

Herrian ez da euskaraz hitz egiten, baina eskualde eskola denez gero, zenbait tokitan orain dela gutxi arte hitz egiten zen. Hain zuzen ere, Xulapain eta Atez bailarak ondo-ondoan daude eta lehenengoan erdaldunak badira ere, bigarrenean zenbait euskaldun aurki daiteke.

2- HASI BAINO LEHEN HARTU BEHARREKO HAINBAT ERABAKI

2.1 ZEIN EUSKALKI :

Euskalkia hartzearen aldeko jarrera nabaria balitz, euskalki hurbilena hartu beharko genuke, hau da: Iparraldeko goi-nafarrera eta horren barruan Atez edo Ultzamako aldaera.

2.2 ADOSTASUNA LORTU :

Adostasuna lortzea zaila bada ere, hasieran beharrezkoa da talde eraginkorra osatzea eta hori ez da hain nekeza. Abiapuntua hori izan daiteke. Interesgarria da behin betiko irakasleek horretan parte hartzea eta talde txikian lanean hastea (hausnarketa, beharra, aukeraketa, proposamena).

2.3 PROGRAMAREN BERRI EMAN HEZKUNTZAKO KOMUNITATEKO PARTAIDEEI :

Hasierako lana egin ondoren txosten bat prestatu behar da D ereduko irakasleei azaltzeko. Egitasmoa onartzen bada, txostena aberastu beharko genuke guztion artean eta hortik aterako litzateke behin betiko agiria. Azken hau sartuko genuke eskolako urteko plangintzan. Urteko egitasmoari Eskola Kontseiluak oniritzia ematean, eskolako alde guztiek ezagutuko lukete.

Horretaz gain, interesgarria izan daiteke guraso elkartekoei jakinaraztea eta beren partaidetza eskatzea .

3- HELBURUAK :

3.1 OROKORRAK :

A- Euskalkiei buruzko hausnarketa.
B- Euskalki bat aukeratzeko beharra edo ez.
C- Aukeratu (hautatzeko arrazoiak finkatu).
D- Hizkuntz-funtzio guztiak zehaztu.

3.2 HELBURU ZEHATZAK :

A-EUSKALKIEN FUNTZIOAK.

a- Euskalkiak eta eskola.
b- Euskalki hurbilak.

B-EUSKALKI BAT AUKERATZEKO BEHARRA EDO EZ :

Euskalki bat aukeratzeko edo ez hautatzeko arrazoiak hauek dira :

- Gure eskolako euskararen egoera orokorraren azterketa :
  Lehentasunak
  Egitasmoak
  Posibilitateak
  Laguntza materiala eta pertsonala.
- Erabilera norekin ? Irakasleekin,ikasleekin...
- Proiektua eskola batena edo ingurukoei proposatu (baldintza berberak dituztenei batik bat).

C- AUKERATZEKO ARRAZOIAK :

-Hurbilpen fisiko, historiko, demografikoa.
-Hizkuntz hurbilpena: euskara batuaren parekotasun handiagoa duena.

Euskalkia aukeratu eta azterketa egin behar da: lexiko, fonologiko, morfologiko eta morfosintaktikoa.

E-HIZKUNTZA-FUNTZIO GUZTIAK ZEHAZTU.

Erabiliko dugun hizkuntza ere mugatu behar dugu:

- Euskara batuaren eremua: idatzi/ahozkoa
  Irakasle/ikasleekin/gainontzeko pertsonekin
- Euskalkiaren eremua: idatzia /ahozkoa
  Irakasle/ikasleekin/gainontzeko pertsonekin
- Euskararen erabileraren garapenean eragina duten aldagaiak:
  -Hizkuntz funtzioiak.
- Euskalkiaren presentzia.

4- EDUKIAK:

A- EUSKALKIEI BURUZKO HAUSNARKETA:

- Ahozkotasuna eta euskalkiak: motibazio faktoreak.
- Euskalkiak eta euskara batua: osagarritasuna .
- Eskolaren funtzioak: euskararekin, edukiekin.
- Euskalkien ezaugarriak:
  . Orokorrak: geografikoa, historikoa, demografikoak
  . Zehatzak: lexikala, fonologikoa, morfologia,morfosintaktikoa

B- EUSKALKI BAT AUKERATZEKO BEHARRA EDO EZ:

Eskolako euskararen egoeraren azterketa:

- Eskola elebiduna /eleanizduna /elebakarra. Zer nahi dugu ?
- Nora goaz ? Euskararen presentzia areagotu, zabaldu.
  Euskalkia indartu.
  Biak batera.
- Gaur egun non gaude ? Eskola osoa / D eredua bakarrik.
- Ekintza isolatua/ Iruñerriko beste eskolekin batera.
- Proiektuaren zabalkuntza eta eraginkortasuna.

C- AUKERATU EDO EZ:

Euskalkien hurbilpena :

- Euskalkia eta bere ingurunea errealitatea isladatzeko modu bat.
- Fisikoa: Iruñetik hurbilena/ zonalde bakoitzetik hurbilena .
- Historikoa: Bizia /Hilda.
- Demografikoa: Biztanle asko / gutxi.
- Linguistikoa: Batuarekin parekotasuna asko/gutxi.

Euskalki baten hautaketa eta bere ezaugarriak zehaztu :

- Lexikoa: hitzak, hiztegia.
- Fonologikoa: ahoskera, intonazioa, azentua.
- Morfologikoa: aditzarekin, adberbioekin nola jokatu.
  Kasu marka ezberdinak: non, nora...
- Morfoxintasia: perpausen arteko erlazioa.

D- HIZKUNTZA-FUNTZIOAK :

- Erreferentziala: munduaz zerbait komunikatu nahi denean.
- Adierazkorra: norberaren egoera, sentimendu, nortasuna adierazten denean.
- Konatiboa: solaskideari zerbaitera eragiten diogunean.
- Fatikoa: solaskideen arteko komunikazioa mantentzeko baliogarria da.
- Metalinguistikoa: hizkuntzaren eta kulturak baldintzatutako jokaeraren arteko harremanaz arduratzen da.
- Poetikoa: mezuaren forman oinarritzen da.

5- BITARTEKOAK:

5.1-MATERIALAK: liburu, txostenak, ikus-entzunekoak, bitarte digitalak.

5.2 PERTSONALAK: ILZ , EIBZ , NUP-eko irakasleak.

- Bertakoak: aukeratutako euskalkia ikasi dutenak.
- Hizkuntz-funtzioetan adituak.
- Hizkuntza ez formalean arituak.
- Talde eraginkorra.
- Koordinatzaile edo dinamizatzaileak.
- Batzordeburuak.

6- METODOLOGIA:

Hasieran talde txikian lan egin behar da. Posiblea izanen litzateke lau edo bost irakaslek parte hartzea. Gehiagorik ez. Talde eragile horrek eginen luke lehenbizi eskolaren egoera soziolinguistikoaren azterketa. Horrekin batera txosten bat (egoera, irtenbideak,...)

Beranduago proposamena helaraziko die D ereduko irakasle guztiei. Lehenbizi txostena banatu behar da, azterketa egin dezaten eta beren ekarpenak emateko. Horren ondorioz, txostena aldatu, gehitu, zabal daiteke. Beraz, denon artean aberastuko dugu.

Garrantzitsuena ez da txosten bera, gainerantzeko guztien partaidetza baizik. Geroago txosten adostua ,beteagoa, aberatsagoa izanen da eta erabakia eskola mailan hartuko da.

Ondoren bi bide daude. Alde batetik, proposamena beste eskola batzuetara zabal daiteke. Horretarako baliogarriak izan daitezke erakunde hauek: NIZE (Nafarroako Ikastetxeko Zuzendarien Elkartea), NIE (Nafarroako Ikastolen Elkartea). Bestetik, eskola mailan garatzen ahal da proposamena, nahiz eta, bere eragina eskasagoa izan.

Proiektua gainerantzeko eskoletara zabaldu nahi badugu, gure txostena helaraziko diegu, beraiek ahal duten neurrian aberasteko.

Egitasmoa eskolan aurrera eramateko erabakia hartuz gero, beste lan talde bat osatuko da.

Bi lan talde txiki eginen dira. Bat arduratuko da hizkuntz funtzioez eta bestea euskalkiaz. Bi talde horietan parte hartzen ahal dute zenbait ikastetxeko pertsonek (proiektua zabaldu nahi bada) edo ikastetxe batekoek bakarrik .

Lanak bukatuta, lotu behar dira eta proiektu bakar batean txertatu. Beranduago txostena prestatu eta bere ezagutza orokortu.

7-JARDUERAK.

Euskalki bat hautatu nahian bagabiltza, hasieran eskolaren barruko hausnarketa egin behar da. Hor iritzi ezberdinak agertuko dira. Bi joera izanen dira nagusi:

- Euskalki baten alde.
- Benetazko zabalkuntza toki eta funtzio guztietan.

Joerak ez dira kontrajarriak eta bai ordea bateragarriak. Barruko eztabaida egin ondoren, badira aurrera eraman behar diren jarduerak:

- Barruko erakundeei jakinaraztea (Guraso, Eskola Kontseilua, Guraso-elkartekoak, langile ez irakaslea...).
- Eztabaidagaia zabaldu ezaugarri berdinak dituzten eskoletan.
- Proposamena zabaldu beste erakundeetara: NIZE, Sortzen-Ikasbatuaz, Iruñerriko ikastoletara...
- Talde eragilea osatu.
- Proiektuan parte hartuko duten eskolako ordezkariak izendatu, geroago haiekin harremanetan jartzeko eta eskolak informazioaren gainean egoteko.
- Aholkulariekin (UPNAko irakasle arituekin) pausoak adostu.
- Euskalkia hautatu.
- Azaldu euskalkia eta euskara batuaren elkarrekintza.
- Euskalkia ikasi/ irakatsi. Talde txiki bat bakarrik.
- Euskararen funtzioez ohartaraztea , guztiak inplikatzeko.
- Funtzio ez formalak landu aukeratutako euskalkian (Talde bat eta eskolako ordezkariak).
- Zabalkuntza eskoletan.

Beste aldetik, derrigorrezkoa genuke finkatzea noiz erabiliko den euskara batua eta euskalkia. Horretan arlo ezberdinak aztertu beharko genituzke:

- Euskara bera lantzen denean :euskal literatura, natur-zientziak...
- Euskararen bitartez beste gauza batzuk lantzen direnean: GH, Musika, Matematika...

Edo beste modu batez egin daiteke bereizketa: idatzizkoa/ahozkoa.

Euskalki baten garapena eman daiteke ere adinarekin batera, hau da, maila batetik aurrera. Hasieran batuan eta behin hori menderatzen dutela ontzat hartuz gero, (hirugarren mailatik aitzinera, adibidez) euskalkia sartzen ahal da.

8- EPEAK:

Epeak luzea izan behar du. Hasieran beharrezkoa da eskolan gaia mugitzea. Hori zaila da, batez ere , denborari dagokionez; administrazioak jartzen dizkigun zamak gero eta handiagoak direlako. Horregatik, aldez aurretik plangintza egin behar da, poliki-poliki bideratzen hasteko .Urte hasieran lasaiago gaude eta hori izan daiteke mementorik onena. Horrela, lehenengo hiruhilabetean osa daiteke taldea, euskalki baten beharraz arduratzeko. Bigarrenean horren abantailak eta desabantailak edo horri buruzko hausnarketa egin liteke. Kurtso bukaeran irakasle euskaldun guztien artean zenbait saio egiteko.

Ondoren, aldeko joera izanez gero, plangintzaren berri eman diezaiekegu beste eskoletako irakasleei bigarren ikasturtearen hasieran. NIZE, NIE, Sortzen-Ikasbatuaz bitartekariak izan daitezke. Erakunde horien bitartez Iruñerriko eskola bakoitzak aztertuko luke eta horrela sortuko litzateke talde eragilea (2. hiruhilabetean). Aholkulariekin harremanetan jartzeko azken hiruhilabetea litzateke, hurrengo urtean eztabaidak hasteko eta gaia jorratzeko.

Epeak horrela gelditukо lirateke:

- 2.urtea:
  Proiektua zabaldu: NIZE , NIE , Sortzen- Ikasbatua.
  Talde eragilea osatu eta eskolako dinamizatzaileak izendatu.
  Aholkulariekin harremanetan jarri.

- 3. urtea:
  Euskalkia hautatu.
  Euskalkia ikasiko du bakarrik talde eragileak
  Funtzio ez formalak ikasi euskalkian. Bakarrik talde txiki batek.

- 4.urtea:
  Zabaldu euskalkia eskolan irakasleen artean. Hemendik aurrera irakasleen elkarrekintzan euskalkia indartuko dugu, bai A ereduko irakasleekin bai eskolako beste pertsonekin (idazkari , atezain,mantentze-langile ,gurasoekin.

- 5. urtea :
  Zabaldu hizkuntza ez formala euskalkian eskolan irakasleen artean.
  Adostu noiz /nola hasi euskalkia irakasten ikasleei.

- 6. urtea :
  Ikasleei hasi irakasten.

9- EBALUAZIOA :

- Euskara gehiagotan erabiltzen da eskolan?
- Euskalkia nahasgarria da ikasleentzat?
- Eskolatik kanpo euskara erabiltzen dute?
- Bereizten dute hitz egiteko eta irakurtzeko euskara?
- Irakasle guztiek propio hartu dute euskalkia?
- Nola eragiten dion euskalkiari behin betiko irakasle asko egoteak?
- Euskalkia garatuz gero ,besteak zokoratzen ditugu?
- Euskalkia garatuz gero ,euskara batua gutxiesten dugu?
- Zergatik euskalki bat eta ez beste bat?
- Posiblea da euskalki bat jorratzea D ereduko eskoletan bakarrik, gizartean zabalduta ez badago? Prozesua naturala da?

Egilea : Edorta Larraintzar

Eskola : Mendialdea Eskualdeko Ikastetxe Publikoa